

ZARAUZKO UDAL JARRAIPEN FOROA

EGUNA/LEKUA:

Otsailak 27, ostirala, 10:00etan.
Zarauzko Etxezabalean.

PARTAIDEAK:

- **Udal ordezkariak:** Nerea Ollokiegi, Parte hartze eta Agenda 21eko teknikaria.
- **Ikastetxeetako ordezkariak:**
 - Antoniano Ikastetxea: Iñaki Erostarbe koordinatzailea eta 2 ikasle.
 - La Salle Ikastetxea: Arantxa Guarretxena koordinatzailea eta 2 ikasle.
 - Lizardi Institutua: Jaione Suinaga koordinatzailea eta 2 ikasle.
 - Oteitza Lizeoa: Ainhoa Mateos koordinatzailea eta 2 ikasle.
 - Orokieta Herri Eskola: Silvia Martinez koordinatzailea eta 2 ikasle.
 - Salvatore Mitxelena Ikastola: Belen Gonzalez koordinatzailea eta 2 ikasle.
- **ARAZI:** Eneko Salaberria

GAI-ZERRENTA:

- **Ikastetxeetako ordezkariak:** HONDAKINAK eta MUGIKORTASUNA gaien inguruan orain arte proposaturikoen egoera aztertu ondoren, gaur egun nabarmendu beharrekoak azalduko dituzte. Gainera, gai horien inguruan bere garaian harturiko konpromezuak zertan gauzatzen ari diren azalduko dute.
- **Udal ordezkariak:** HONDAKINAK eta MUGIKORTASUNA gaien inguruan ikasleek aipaturikoen kudeaketa zertan den azalduko dute.

GARAPENA:

Bertaraturiko guztioi ongi etorria eman ondoren, Nerea Ollokiegi teknikariak bere burua aurkeztu du. Jarraian, Udal Jarraipen Foroaren testuingurua azaldu du Araziko ordezkariak, Eskolako Agenda 21 programan bai eskolen eta baita udaletxearen parte hartzea nabarmendu delarik. Gainera, aurreko urteetan landutako gaien "eguneraketa"ren garrantzia aipatu da, Udal Jarraipen Foroa horretarako baliagarria dela azpimarratuz. Kasu honetan HONDAKINAK (2006-2007 ikasturtean landutakoa) eta MUGIKORTASUNA (2009-2010 ikasturtean landutakoa) gaiei so egiteko abagunea izan da.

Horrenbestez, herriko 6 ikastetxeetako ikasle ordezkariak mugikortasunaren inguruan ondorengo aipamenak egin dituzte:

- Paperetxeko rotondan, kotxeen abiadura moteltzeko semaforo baten beharra antzeman da.

Udalaren erantzuna: ez da neurri egokia, trafikoa gehiegi motelduko bailuke. Kojin berlines izeneko tresnak jarri dira horretarako.

- Bereziki bizikletentzako baliagarriak izango diren semaforoak jartzea komenigarria litzateke kotxeekiko arriskuak murrizteko.
- La Sallerainoko bidegorria jartzea komenigarria litzateke.

Udalaren erantzuna: eskoletara iristeko mugikortasuna bereziki landuko da epe laburrean, eta erabakiak hartuko dira.

- Semaforo guztietan aldaketa eskatzeko botoia eta seinale akustikoa egotea komeniko litzateke.
- Herriko hainbat kaleetan kokaturiko edukiontzien bisibilitatea kentzen dute, istripuak gertatzeko arriskua emendatuz.

Udalaren erantzuna: aztertuko da.

- San Francisco eta Santa Marina kaleetan, esaterako, espaloien zabalera eta konponketa komeniko litzateke.

Udalaren erantzuna: udalaren helburua "kasko" guztia oinezko bilakatzea da, Zigordia kalea eredia delarik.

- Zebrabideak espaloien altuerakoak eta ez-irristakorrak izan beharko lirateke.

Udalaren erantzuna: udalak garrantzi handia ematen dio horri eta irisgarritasunean erreparatzen ari da.

- Hilerrira igotzen den errepidean espaloia egotea komenigarria izango litzateke.
- Bereziki zakurren gorotzak botatzeko zakarrontzi gehiago jartzea proposatzen da.

Udalaren erantzuna: gai honen inguruan ez dago adostasunik, hartarako zakarrontziak jartzearen aldekoak eta kontrakoak baitaude. Dena dela, arazoaren erantzukizuna zakurren jabeetan topatu beharra dago. Gaikako zakarrontziak aurten jarriko dira esleipen berri baten harira.

- Herrian zehar zebrabide gehiago jartzearen beharra antzeman da.

Udalaren erantzuna: 2015 urtean zehar sentsibilizazio kanpainak burutu nahi dira: bizikletaren erabilera suspertu eta hobetzeko, eta Zarautz "slow city" bilakatzeko. Herriko hainbat lekutan zebrabide berriak jarri dira eta besteak txukundu egin dira (Euromarren eta Arestin....).

- Azken Portutik bueltan bizikletan joateko, trafikoarekiko kontrako norantza eraman behar da. Konponbiderik ba al dago?

Udalaren erantzuna: bizikletak errepidera edo espaloira pasatzea izango da helburua, motordunak-bizikletak edota oinezkoak-bizikletak elkarkidetzat bultzatuz. Gainera kontrako norantzak saihestu nahi dira eta bakarrik onartuko dira babes bandak horretarako propio jarriko diren gunetan.

- Antoniano inguruan bizikletak lotzeko gune gehiago jartzea komenigarria izango litzateke.

Udalaren erantzuna: inguru horretan leku gutxi dago. Izatekotan, inguru lokalak bat hartu beharko litzateke, baina momentuz ez da jabeekin adostasunik lortu.

- Lizardiko gurasoen elkarrekin bizikleten aparkalekuan estaldura jartzeko aukera aztertzen ari da.
- Garraio publikoaren merketzea eta ibilgailu pribatuen partekatzea areagotzea komenigarria izango litzateke.

Udalaren erantzuna: MUGI txartelarekin prezioak asko murrizten dira. Urola Kostako Udal Elkarte eta Eusko Jaurlaritza elkarlanean arituko dira ibilgailu pribatuak partekatzeke aukerak errazteko.

- Ibilgailu ezberdinen arteko elkarkidetzak hobetu beharko litzateke.
- Duela urte batzuk argiztatu gabe zeuden kaleak modu egokian argiztatu dira.

Udalaren erantzuna: bai, kontsumo baxuko argiak dira, beherantza zuzendutakoak eta gehiegizko argia ematen ez dutenak. Horri esker, argi-kutsadura ekiditen da.

- *Udaletxearen aurrealdea oinezkoentzako gunea bilakatu da, eta hori oso aproposa gertatu da.*

Udalaren erantzuna: komertziantek ere oso pozik daude. Finean, Zigordia kalea "biziagotu" baita.

Mugikortasuna oso oinarrizko gaia da udalarentzako. Zarautz kotxerik gabeko herria eta bizikleten herria izatea nahi du. Hori lortzeko hainbat neurri hartuko dira: garraio publikoa indartu, aparkaleku disuasorioak jarri...

Jarraian, herriko 6 ikastetxeetako ikasle ordezkariak hondakinen inguruan ondorengo aipamenak egin dituzte:

- Orokietako ikasleok arduratsuago jokatzeko dugu: murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena lagun. Dena dela, oihalezko mukizapien aldeko apustua egitea gehiago kostatzen ari da (gehienez kleenexak erabiltzen jarraitzen dute).
- Kaleetan ez dago papera eta plastikoa bereizteko zakarrontzirik (edukiontzien handiak bakarrik daude!).
- Erabilitako olioak botatzeko edukiontzien gutxiago daude Zarauzko kaleetan.
- Merkatari, enpresak eta ostalariak sentsibilizatzeko kanpainak egitea komenigarria litzateke.
- Hauteskundeetan paper gehiegi erabiltzen da. Ez dago beste modurik?
- Mancisidor kaleko edukiontzien kokapena desagokoa da, enbarazu egiten baitute.

Udalaren erantzuna: edukiontzien kokapenarekin asmatzea oso zaila gertatzen da, baldintza asko kontutan hartu behar dira eta. Lurrazpiko sistemak ez du funtzionatu: garestia suertatu da, lixibatuak jaso dira, arratoiak ugaritu dira...

- Lizardin "patruila berdea" dago, eta hondakinak ondo kudeatzeaz arduratzen da: jaso eta behar bezala sailkatzen dela bermatzen du.
- "Zizare proiektua"ren bitartez, konposta egiten da eskola guztietan.

Udalaren erantzuna: hondakinen gaia zalapartatsua izan da eta udalak ahalegin berezia egin du eztabaida politikotik ateratzeko. Hala, unibertsitateko hainbat lagunek eta beste zenbait adituz osaturiko hondakinen mahaia sortu zuen. Bertan, irizpideak adostu ziren (6 hilabeteko lana): %75a bereiztu beharko litzateke, ekonomikoki bideragarria izan beharko litzateke, inguruko herriak kontutan hartu beharko lirateke, ... Orokorrean aurreikusten den sistema gaur egungo edukiontzietan oinarrituko da eta hobekuntza batzuk ezarriko zaizkie.

Udalak brigada berdea jartzea erabaki du. Honen bitartez, edukiontzien inguruan heziketan sakontzea izango da helburua. Gainera, ontzi bereziak jarriko dira, horietako bakoitza erabiltzeko modua ezberdina izango delarik.

- Hondakinen bereizketa ondo egiten duenari saria eman eta gaizki egiten duenari isuna jarri beharko litzaioke.

Udalaren erantzuna: birziklatzearen ekintza mekanikoki atera beharko litzaiguke, inongo sariren beharrik gabe!

- Txikitatik gaikako bilketaren arabera hezituz gero, beharbada gerora hobetuko litzateke.

Udalaren erantzuna: txikiekin ez dago arazorik (txikiek bereizketa egokia egiten dute), helduekin baizik!

- Salbatore Mitxelenako ikasleek ere aurrerapauso nabarmenak eman dituzte hondakinen bereizketan.

Behin hondakinen inguruko proposamen eta zalantza guztiak aztertuta, Nerea Ollokiegik honako galdera egin die jarraipen foroako partaideei: **nola ikusten duzue udala?** Jasotako erantzunak ezberdinak izan dira:

- Ikasle batek: gertukoa, auzoetan gauza asko egin baititu.
- La Salle Ikastetxeko koordinatzaileak: ikastetxea alde batera utzita dauka, mugikortasunaren inguruan egindako eskaerei ez baitzaie erantzun.
- Salbatore Mitxelena Ikastolako koordinatzailea: bizikleta guztiak aparkatzeko tarte nahikorik ez dago. Inguruan aparkaleku berriak jartzea eskatu zen baina ez dira jarri.

Udalaren erantzuna: egungo plangintzak egiten direnean (auzo berri bat sortzeko edo), bizikletak aparkatzeko behar izango diren lekuak kontutan hartzen dira.

- Oteitza eta Antoniano kokatzen diren kalean bizikletak aparkatzen dira eta kalea oso estu geratzen da aulkiekin pasa ahal izateko.

Udalaren erantzuna: Oteiza eta Antoniano ikastetxeei eskatu zaie beraien eskoletan, barruan, gaur egun hainbat kotxe aparkatzen dituzten horretan, bizikletentzako lekua egin dezaten eta Udalak jarriko ditu bizikleteroak.

Horrenbestez, bertaraturiko guztioi beraien parte hartzea eskertuz, Udal Jarraipen Foroari amaiera eman zaio. Bide batez, udaletxean elkartzeko hurrengo hitzordua maiatzeko Udalbatzarra izango dela aipatu da.